



Mondragonek industriguneak ezarri nahi ditu Errusian eta Marokon

Proiektu biak aztertzen ari dira oraindik eta epe luzera garatzeko pentsatuak daude; bitartean, beste poligono baten inaugurazioa prestatzen ari da euskal korporazioa datorren urterako, Indian, atzerrian enpresa guneak martxan jartzeko estrategiaren barne.

[Informazio +](#)



Lantegi Batuak eta Gureak entitateek "ex aequo" irabazi dute Txemi Cantera 2010 saria

Bi erakundeak Euskadiko Elkarte Laboral Taldeak (ASLE) ematen duen sariaren aurtengo edizioaren irabazleak izan dira joan den azaroaren 25ean egin zen ekitaldian. Epaimahaia azpimarratu zuen bi entitateek ezgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeko urtetan egindako lana.

[Informazio +](#)



Espainiako Elikagaiak Sariak Eroskiren lana saritu dute elikagaien banaketa eta salmenta arloetan

Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako ministro Rosa Aguilarrek banatu zituen, joan den azaroaren 4an, Madrilan, Espainiako Elikagaiak Sariak 2009. XXII. ekitaldi honetan hiru kooperatiben jarduna saritu dute: Eroski, COVAP eta Coato.

[Informazio +](#)



Fagorrek fabrika berria irekiko du Asian eta datozen hiru urteotan bertako fakturazioa hirukoiztu nahi du

Kooperatibak 25 milioi euro inbertituko ditu Txinan eta 150 milioiko irabaziak lortu nahi ditu kontinente horretan, datozen hiru urteetan, Fagor Hometek ikerketa, garapen eta berrikuntzako nazioarteko zentroaren inaugurazio ofizialean aditzera eman zuten. [Informazio +](#)



Gaztempresa fundazioa, Corresponsables Sarietan garaile

Sari horiek aintzat hartzen dute Gizarte Erantzukizunaren arloko enpresa handi eta txikien, administrazioen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen lana. Euskadiko Kutxaren menpe dagoen Gaztempresa proiektuak gain, gizarte ekonomiaren sektoreko Intercoop nekazaritza kooperatiba eta Icaria enplegu-zentro berezietan taldea ere saritu zituzten.

[Informazio +](#)



Mondragon Unibertsitateak 500 lagun bildu ditu Enpresaritza Fakultatearen 50. urteurrenaren ospakizunean

Mondragon Unibertsitateak (MU) Enpresa Ikasketen Fakultatearen 50. urteurrena ospatu zuen, azaroaren 18an, Donostiako Kursaal Jauregian. Ospakizunak unibertsitate historiko horrekin lotutako 500 bat pertsona bildu zituen, ikasleak, ikasle ohiak, irakasleak, irakasle ohiak eta enpresako ordezkariak, besteak beste. [Informazio +](#)

±

RPK enpresak katalogoaren dibertsifikazioarekin eta fakturazioaren %30ekoigoerarekin itxiko du urtea

Merkatuak eta produktuak dibertsifikatzeko apustuak emaitza onak izan ditu, fabrikak handitu ahal izan baititu kooperatibak eta zumitzezko piezak fabrikatzen dituen Bardaji enpresa erosi berri baitu.

[Informazio +](#)



Bizitegik hirugarren sektorearen etorkizunari begiratan dio bere 30. urteurrenean

'Bizitegi 30 urte, eta zer?' lelopean, Bizitegi elkarteak jardunaldi bat egin zuen azaroaren 11n baztertze arriskuan dauden Bilboko pertsonen alde egindako 30 urteak ospatzeko. Bizitegik hiru hamarkadako ihilbidea



Oronak bere posizioa indartu du European All-in Liften Holandako enpresaren erosketarekin

Orona Korporazioak All-in Liften igogailuak instalatu eta mantentze-lanak egiten dituen Amsterdamgo enpresa erosi du. Hernanin egoitza duen kooperatibak Europako merkatuan bere



posizioa indartzeko strategiaren barruko beste urrats bat izan da erosketa hori. Joan zen uztailen, Mid Western Irlandako enpresa erosi zuen Oronak. [Informazio +](#)

strategia hura hainbat aldiz berretsi da baliatu du etorkizunari begiratu eta erronkak ezartzeko. Jardunaldian Osakidetzako, Bizkaiko Foru Aldundiko, eta REAS Euskadiko ordezkariak izan ziren. [Informazio +](#)

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipiniz